

HOMO HOMINIS LUPUS



Herritarra

Jatorrizko izenburua: *De cives*

Egilea: Thomas Hobbes

Itzultzailea: Patxi Ezkiaga

Argitaratze urtea: 2004

Argitaletxea: EHU (Limes bilduma)

KARLOS DEL OLMO

Limes bildumak beste liburu bat plazaratu duen garaian aurreko ale baten gainean jarduteak balirudike oso garaiz kanpoko kontua, baina liburugintza erasanda duen lastertasun eta "igarokeriazko" garai honetan, honelako liburuek beste *tempus* bat behar izaten eta eskatzen dute. Limes-ek mugartekoa izan gura ei du, pentsamenduaren eta literaturaren arteko jabe ezagun bagako lurrian jardun. Itauntzea dago, jakina, ea pentsamendurik gabeko literaturarik ba ote den benetan; edozelan ere, hobe irakurleari erabakitzen uztea liburu bakoitzari ze genero etiketa dagokion.

Hobbesen *De Cives* jatorrizko liburuaren pasarte sorta itzuli honen gaineko artikulu batek hainbat hasiera mota izan litzake. Hamazazpigarren mendeko filosofo, logika zale, idazle eta itzultzaile ingeles honen biografiak bidezidor ugari eskaintzen ditu horrelako iruzkin baten ataurrea paratzeko. Nahikoa litzateke Galileo desdixatuaren adiskidea izan zela esatea.

Absolutismoaren defendatzaile sutsua, Frantzian egon zen erbesteraturik errepresalien beldurrak eraginda, nahiz eta handik ere hanka egin behar izan zuen ostera ere Ingalaterrara itzultzeko. Sarritan, ateotzat jotzen izan zuten elizaren instituzioei eraso handiak egiten bide zizkielako. Ospea lortu du pentsamenduaren baranoan XVII. mendeko dotrina materialistik osatuena eraiki zuelako, baina ukatzen ezina da munduko itzulpengintzaren historia xumean ohorezko tokia ere lortu zuela, 86 urterekin *Iliada* eta *Odisea* ingelesera itzuli zituen zero.

Gaur egungo hizkera politikoan halako ospetsu eta eguneroko ditugun hainbat termino eta pentsamendu sailek —gizarte zibila, lege naturala, botere absolutua...— *Herritarraren gainean* tratatua dute jatorri edo laneremu.

Thomas Hobbesek Unibertsoa soindun makina handi baten antzera dakusa, non gauza guztiek mekanismoaren legeak betetzen dituzten, fenomeno guztiak elementu kuantitatibo hutsak bitarte direla azaldu beharrekoak dira, Unibertsoak berak soin ukigarria bide dauka, materiala ez dena ez da erreala. Gizakiaren askatasunak eta aukeramen askeak mugatzen dute Hobbesen determinismo basa.

Ezin ukatuzkoa da Hobbesen ideiak Erreformak aldarrikatzen zituen deszentralizazio, parlamentarismo, ideologia eta kontzientzia askatasunaren aurkakoak zirela, haietan anarkia eta kaosa besterik ikusten ez zituen zero. Estatuaren giza artean gertatzen den elkarren aurkako gerra bideratzeko artifizioa da. Aginte absolutua, estatuaren kausetatik libratzeko bide bakarra da.

Haren teoriaren eta praxiaren artean kontraesan ederra fortunatu zen: Estatuaren botere absolutua eta autofagoa aldeztu arren, erlijio eta pentsamendu askatasunen alde agertu zen, eta Europa sekularrari bultzada eskerga eman ere zion.

Euskarazko bertsio honetan harrigarri samar gertatzen da ortotipografiako kontu txikitxo baina ugaritasunean harrigarri bat: atal hasieretan zifra bat, puntua eta, ezelako tarterik gabe, testuarekin hastea. Bestalde, zatiren batzuetan badirudi joskera egokitzapenen baten edo besteren beharrea legokeela dirudi, esaterako: "politiko deritzan animalien artean" edo erraz konpon litezkeen errepikapenak, parentesi berberaren barruan "hau da" birritan idaztea eta antzeko zirtzilkeriaren bat edo beste, edukiari, jakina, minik batere ematen ez diotenak, Patxi Ezkiagak euskaraz ondutako testua, oro har, ulergarri eta, pentsamendu sendoa dela kontuan, irakurtzen erraz samar gertatzen delako.

Hobbesez berak esan legetxe, "egiazko jakituria egiaren ezagupena baino ez da, edozein dela ere arloa".